

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

NAVARIDASKO UDALA

Behin betiko onarpena ematea udal bulegoak eta instalazioak erabiltzeagatik ordaindu beharreko tasa arautzen duen ordenantzari

Jendaurrean egon den bitartean erreklamaziorik eta alegaziorik aurkeztu ez denez gero, behin betiko onartu da udal lokal eta instalazioen erabilera tasa arautzen duen ordenantzaren aldaketa. Hona hemen testu osoa hitzez hitz:

Zioen azalpena

Behar zehatz edo iragankor batzuk asetzeko xedez elkarte, partikular eta erakundeek udalaren lokalak erabiltzeko baimena eskatzen dutenean, lokal horiek aldi baterako lagatzeko jarraitu behar den prozedura orokorra eta irizpideak ezartzea eta erabilera hori arautzea.

Ezarri eta arautzea udal bulegoak eta instalazioak erabiltzeagatik ordaindu beharreko tasa arautzen duen ordenantza.

Ordenantza honetatik kanpo geratzen dira elkarte, enpresa edo partikularrei beren jarduerak modu iraunkorrean gauatzeko egiten zaizkien toki edo lokalen lagapenak edo beste arautegi bereziren bat daukaten eraikin edo ekipamenduen lagapenak. Halaber, hauteskunde arautegia betez, ordenantza honetatik kanpo geratzen da alderdi politikoei lokalak erabiltzea.

1. artikulua

Navaridasko udalak udal lokalak eta instalazioak erabiltzearen tasa ezartzen du uztailaren 41/1989 Foru Arauaren, Arabako lurralde historikoko toki ogasunak arautzen dituenaren, 15., 16., 17. eta 19. artikuluetan, Konstituzio Auzitegiaren abenduaren 14ko 185/1995 epaian eta uztailaren 13ko 25/1998 Legean xedatutakoarekin bat etorritik. Zerga ordenantza honek arautuko ditu tasa horiek eta zerga ordenantzak arautzen ez duenari Arabako Foru Aldundian indarrean dagoen araudia aplikatuko zaio.

2. artikulua

Tasaren zerga gaia da udalaren lokal eta instalazioak erabiltzea, bai eta gainerako bitarteko materialak eta langileak ere, ekitaldietan eta jardunaldietan erabiltzeko.

3. artikulua

Tasa horren subjektu pasibo dira udal lokalak erabiltzeko baimena duten edo udalaren zerbitzuak jasotzen dituzten pertsona fisikoak eta juridikoak eta erakundeak eta elkarteak.

4. artikulua

Erabilera pribatiboak edo etekin bereziak udal ondasunen suntsipena edo narriadura badakarte, onuraduna, ordaindu beharreko tasa ordaindu arren, behartuta egongo da konponketa gastuek eragindakoa ordaintzera. Konponketak eragiten duen zenbatekoa aldezturik jarri beharko du.

5. artikulua

Kalteak konponezinak badira, suntsitutako edo narriatutako ondasunen balio osoaren pareko kalte-ordaina emango dio udalari onuradunak.

6. artikulua

Eskatzea egongo da, halaber, eskatutako jarduera edo zerbitzuek eragindako gainerako zerbitzuen benetako kostua, batez ere, garbiketa, zainketa eta beste batzuei dagozkienak. Horrelakoetan, dagokion tasa ez ezik izan litezkeen aparteko zerbitzuak edo kalteak bermatzen dituen diru bermea ere eskatu ahal izango da.

7. artikulua

Ezin izango dira barkatu ez osorik ez zati batean artikulua hauetan aipatzen diren kalte-ordainak edo ordainketak.

8. artikulua

Ez dute tasa hau ordainduko sozietatearen egoitza Navaridasko hiribilduan duten kultura eta irabazteko xederik gabeko elkarteak.

Ez dute ordainduko, halaber, aurreko artikuluan aipatutako elkarteetako kide direla egiaztatzen duten pertsona fisiko eta juridikoei.

Tasa murriztuko zaie egoitza Navaridasen duten eta aurreko paragrafoetan aipatutako elkarteetako kide ez diren pertsona fisiko eta juridikoei. Murrizketa hori araudi honetan xedatutakoaren arabera izango da.

9. artikulua

Hau izango da zerga kuota:

1. Udal instalazioak ordu eta erdiz erabiltzeagatik: 6 euro
2. Udal instalazioak bi orduz erabiltzeagatik: 10 euro
3. Bi ordutik gora, ordu laurden bakoitzeko: 2 euro
4. Udal instalazioak egun batez erabiltzea: 25 euro
5. Tarifa horiek ehuneko 50 murriztuko dira ordenantza honen 4.3 paragrafoan xedatutakotarako.

10. artikulua

1 Zerga gaia den zerbitzua eskaintzeko eskatzean sortzen da tasa, bai eta zerga ordaintzeko beharra ere.

2. Tasaren kobrantza kudeatzeko era: autolikidazio bidez. Udal diruzaintzan edo udalak zehaztutako tokian ordainduko da; ordaindu ere zerbitzua eskaintzeko eskaera aurkeztean. Ez da eskaerarik izapidetuko tasa ordaindu dela egiaztatu ezean.

3. Eskaera aurkeztu eta ondoren, eskatzaileek eskatutako zerbitzuari uko eginez gero, itzuli egingo da ordenantza honen 9. artikuluan adierazitako zenbatekoaren ehuneko 25.

11. artikulua

Kultura jarduera edo ekitaldi publikoak egiteko udal instalazioak erabili nahi dituzten pertsonen arauzko baimena eskatu beharko dute.

AZKEN XEDAPENA

Zerga ordenantza hau 30 egun baliodunegongo da jendaurrean, iragarkia ALHAOn argitaratzen denetik aurrera. Epe horretan, haiek udal idazkaritzan aztertu ahal izateaz gain, egoki deritzeten alegazioak aurkeztu ahal izango dituzte interesdunek. Alegaziorik aurkeztu ezean, testu hori behin betiko onartuko da beste inolako erabakiren beharrik gabe.

Navaridas, 2016ko martxoaren 9a

Alkatea

MIGUEL ANGEL FERNANDEZ GONZALEZ